



## **2015eko Hauteskunde Sindikalak: steilas, irakaskuntza publikoan gehiengoa duen sindikatua**

Atzo burutu zen Gipuzkoako Lan-legepeko Irakasle eta Hezitzaile kolektiboaren bozketa. Bozketa joan den martxoaren 11an atzeratu zen erabaki judizial baten ondorioz. Parte-hartzea % 53,5koa izan da; **steilas**-ek orain arte zuen ordezkari-kopuru bera (2) lortu du eta % 24,5 egin du gora boto-kopuruan.

Honekin amaitutzat eman behar da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan irakaskuntza publikoko esparruan -unibertsitatekoan nahiz unibertsitatez kanpokoan- egin den hauteskunde sindikalen prozesua. **Beraz, balorazio orokorra egiteko eta ondorioak ateratzeko ordua da;** ondorio horiek hurrengo lau urteetako lana era eraginkorren burutzen lagunduko baitigute.

Lau urtetan zehar gure lan-baldintzek eta zerbitzu publikoak berak murrizketa latzak jasan eta gero, gure hezkuntza sistemak LOMCE eta unibertsitate erreformaren eraso zentralizatzailea jasotzen zuela ere ikusi behar izan dugu. Testuinguru horretan, hauteskunde sindikalei begira, gure helburuetariko bat zen irakaskuntza publikoko langileek beraien botoaren bidez babesa ematea **steilas**-en proiektuari nahiz urte hauetan eginiko lanari.

Hauteskundeetan izandako parte-hartze maila aztertuz gero, argi dago hori ez dela horrela izan eta kezagarria da **sindikatu guztiok botoak eta ordezkari galduta izana**. EHUn batez besteko parte-hartzea ez da % 33ra iritsi (2011n baino 4,3 puntu txikiagoa) eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan % 42,4k bozkatu du soilik (duela lau urte baino 2.150 boto-emate gutxiago). Datu horiek ez dira onak, langileon ordezkari Hezkuntza sailaren aurrean ahuldu egin baita oso une garrantzitsuan: 2015-18ko Unibertsitate Plana, Heziberri eta bere Hezkuntza Legea, negoziatio kolektiboaren blokeoa, murrizketak, hezkuntzako gastu publikoaren murrizketa... Parte-hartzearen jaitziera kolektibo guztietan gertatu bada ere, deigarria da unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen taldean (% 51,4tik % 41,2ra) eta EHUKo lan-legepeko irakasleenean (ozta-ozta gainditu da % 20) eman direnak. **steilas**-ek uste du parte-hartze eskas honek hausnarketa sakona eskatzen duela.

Halere, **steilas**-en ustez, emaitzek indartu egin dute mobilizazio eta borrokaren bidez politika publiko murriztaileen kontra borrokatu dugun sindikatuon egoera. Eredu horren gainerako nortasun ikurrak ezagunak dira: lan-harremanetarako euskal esparrua, euskara, hezkuntza-sistema propioaren garapena... Jarrera "paktistak" eta estatalistak aldarrikatu dituzten sindikatuek, berriz, jipoi ederra jaso dute (CCOOk 1.000 boto galdu du, UGTK bere botoen % 30).

Edonola, hiru lurraldetan lortutako emaitzei erreparatuta, **steilas**-ek badu pozik egoteko nahikoa arrazoi. Lau urte pasa dira eta irakaskuntza publiko osoan

-irakaskuntza unibertsitarioan eta ez unibertsitarioan- boto gehien jaso duen sindikatua da **steilas**, 3.868 boto lortu baititu, hau da hautesleen % 28,4. Bigarren sindikatuak (LABek), guk baino 134 boto eta puntu bat gutxiago izan du, eta duela lau urteko alde handitu egin da. Gure ordezkari % 2,9 gehitu da; LABena % 2,5, ELArena %0,3 eta gainerako sindikatuak ordezkariaren gutxitzea pairatu dute (CCOOek 5 puntukoa eta UGT ez da %5era iritsi).

**UPV-EHU**n **steilas** boto gehien lortu duen bigarren sindikatua da, **AZP funtzionarioen artean gehiengoa** eta gainerako kolektiboetan, esan bezala, bigarrena. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, **inoiz baino gehiengo zabalagoa lortu dugu irakasle funtzionarioen artean** -kolektibo hau hautesleen % 87 dela kontuan izanik, hau da, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan jendetsuena. Botoen % 33 lortu dugu, orain dela 4 urte baino 4,5 puntu gehiago; bigarrenak, LABek, 2 puntu igo ditu. Gehiengo hau 3 lurraldeetan errepikatzen da (Arabak % 41,7; Bizkaian % 30 eta Gipuzkoan % 32,3). EAEn bigarren indar sindikalak, LABek, baino 650 boto, 7 puntu eta 9 ordezkari gehiago ditugu. Gainera, diferentzia, duela 4 urtekoa baino handiagoa da.

**steilas** sindikatuaren emaitza onak bigarren planoan gelditu dira, izandako botoen gehiengoak ez baitu ordezkari kopuruen nagusitasuna ekarri. Horren arrazoiak bi dira: ez gara aurkeztu unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako bi sektoretan (zerbitzuetako lan-legepeko langileen eta erlijio irakasleen sektoretan) eta, gainera, indarrean dagoen hauteskunde araudiak mesede egiten die kolektibo txikiei. Izan ere, ordezkariak aukeratzeko orduan, erlijio irakasleen artean 10 botoko ordezkari bat lortzen da, eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasle funtzionarioen artean, berriz, 90 botoko ordezkari bat. Adierazgarria da ikustea **steilas**-ek ordezkari berriak eskuratu dituela, hain zuzen ere, garestien zen eremuetan, lehen aipaturiko irakasle funtzionarioen artean. Aldi berean, erlijio irakasleen artean, duela 4 urte baino 12 ordezkari gehiago aukeratu dira, 306 hautesle baino ez duen kolektibo batean. Gauza horien gainera, **steilas** izan da irakaskuntza publikoan ordezkari gehien atera duen sindikatua, 8 ordezkari EHU kontuan hartuta.

**steilas**-ek uste du lortu duen sostengua egunero ondo egindako lanari eta bizi dugun une latz honi esker izan dela. Gure sindikatuak Euskal Eskola Publikoaren alde egiten duen defentsa zintzoari esker datorrela emaitza.

Nafarroako datuak ez baditugu ere (hauteskunde sindikalak maiatzaren 20an izango baitira) uste dugu gure gehiengo sindikala aldarrikatzeko unea dugula hau, nahiz eta jakin bestelako irakurketak ere egiten ari direla. Dena dela, gure indarrak ekintza sindikalera zuzenduko ditugu, lan eskubideen alde eta hezkuntza sistema propio baten alde, hain zuzen ere. Publikoa ardatz, publikoa helburu. Hau da hurrengo lau urteetarako hartu dugun konpromisoa.

2015eko martxoak 26